

FAUNA PUBLIKOA

"Jose Luis Alvarez Enparantzak badauzka ezaugarri asko, tartean ETaren sortzailea izan zela. Normala iruditzen zait horrek udal mailako errekonozimendu bat egiterakoan zailtasunak sortzea"

Eneko Goia, Donostiako alkatea
(Euskadi Irratia)

Memoria selektiboa



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Arrazoi du Goiak: Jose Luis Alvarez Enparantzak, Txillardegik, badauzka ezaugarri asko, tartean Donostiako alkateak elkarriketa honetan erabiltzen duen hizkuntzak estandar arautua izan zezan egindako lan titanikoa, zeina gabe ez den posible ezta elkarriketa bera ere, hizkuntza gaur egun ulertzen dugun moduan belaunaldi horri zor diogulako.

Hori hasteko. Zeren, baditu ezaugarri gehiago ere: euskarazko lehenbiziko nobela modernoaren egileaz ari gara edo, gutxiago aipatzen diren kontuak ekartzeagatik, Donostiaren historia ondo ikertu zuen pertsona bati buruz –ikusitako Antigua auzoari buruz eta Santa Klara uharteaz egin zituen bi liburuak, adibidez–, hiriak eskertu beharko lizkiokeen kontu pare bat besterik ez aipatzeagatik.

Eta bai, Txillardegi ETaren sortzaileetako bat izan zen. Detaile bat ordea: 1968ko ekainaren 7an ETak lehenbiziko pertsona hil zuenerako, jada ez zen taldeko kide. Hamarkada batzuk geroago Aralarren ere aritu zen, borroka armatuarekin kritikoak ziren ezker abertzaleko kideak biltzen zituen alderdian. Hori ere izan zen Txillardegi eta bere posizionamendu guztiak kontuan hartu gabe, nekez osatu dezake inork haren ibilbideari buruzko ideia txukunik.

Zergatik, baina, Donostiak azken mendean eman duen intelektual handienetako batekin horrelako jarrera mizkina? Ezin izan zutelako bezatu. Ez zelako diktaduraren zapatapean egoteko pertsona, ezta diktadura osteko paktuek saldu zuten zapata estuan kabitzekoa ere. 1978ko erregimenaren memoria selektiboa hemen ere nola aplikatzen den erakusten du Goiaren adierazpenak: berdin du zure ibilbide osoko ekarpenak, esaneko jendeari errazago zabalduko diogu omenaldien atea. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



OTXARKOAGA DIOZU?
ZER DA HORI?

AUZO BAI?

ZER DA
HORI?



AÑUR